

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Valle de Trápaga-Trapagarango Udala

Ayuntamiento de Valle de Trápaga-Trapagaran

2017





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZADURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak	11
III.2 Langileria	12
III.3 Kontratazioa	12
III.4 Transferentziak eta diru-laguntzak	13
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak	14
IV. FINANTZA ANALISIA	15
V. URTEKO KONTUAK	19
ERANSKINAK	23
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera	23
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak	23
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	24
A.4 Transferentziek, diru-laguntzek eta besterentzeek eragindako sarrerak	26
A.5 Langileria-gastuak	28
A.6 Ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa	29
A.7 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	30
A.8 Aurrekontuko zordunak eta pasibo arrunta	32
A.9 Kontratazioaren analisisa	33
ALEGAZIOAK	35



ABREVIATURAS	41
I. INTRODUCCIÓN	43
II. OPINIÓN.....	44
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	44
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	45
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	47
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos	47
III.2 Personal.....	48
III.3 Contratación	48
III.4 Transferencias y subvenciones	49
III.5 Morosidad y otros aspectos	50
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	51
V. CUENTAS ANUALES	55
ANEXOS	59
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	59
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	59
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	60
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y enajenaciones	62
A.5 Gastos de personal	64
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones.....	65
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	66
A.8 Deudores presupuestarios y pasivo corriente.....	68
A.9 Análisis de contratación.....	69
ALEGACIONES	71



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZADURAK

10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
139/2015 FD	139/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onartzen duena.
2/2016 Legea	2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
27/2013 Legea	27/2013 Legea, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoa.
57/2003 Legea	57/2003 Legea, Toki Administrazioa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.
BAO	Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HILBIZ	Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LH	Lanbide heziketa.
LUO	Lurraren Udal Ondarea.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Trapagarango Udalaren 2017ko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako aurreko fiskalizazio lana 2003ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztaketak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Balantzea, Ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua, Oroitidazkia eta Aurrekontuaren likidazio-egoera.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza-analisia.

Trapagarango udalerrak 11.953 biztanle zituen 2017ko urtarrilaren 1ean. Udalak honako hauetan parte hartzen du: Meatzaldeko Behargintza SL udalen arteko sozietatean (% 20) - eskualdeko 5 udalen enplegu-eskumenak eta garapen ekonomikoa kudeatzen ditu- eta Talleres Gallarreta Lantegia SLn (% 25) –enpleguko zentro berezi bat eta okupazioko zentro bat kudeatzen ditu-. Halaber, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitatean eta Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoan ere esku hartzen du; lehenak hondakinen tratamenduan laguntzen du eta bigarrenak, uraren hornidura kudeatu eta goi mailako sareko saneamendu zerbitzua ematen du.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Hornidura kontratu bat eta zerbitzuetako beste bost, guztira 2017an 2 milioi euroren kostukoak, Udalak prozedura oro saihestuta kontratatu zituen (ikus A.9).
2. Futbol zelai batean belar artifiziala hornitu eta instalatzeko kontratua publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zen 220.161 euroan eta obra kontratu izaera eman zitzaion; ordea, aintzat hartuta kontratuko prestazioen izaera eta alde zuzenetik egintzarik ez gauzatu izana, prozedura ireki bidez izapidetu behar zatekeen; honenbestez, publikotasun eta lehia printzipioak urratu dira.
3. 2017an zerbitzu-kontratu baten xedea, guztira 247.492 euroren kostua izan zuena, 4 espedientetan zatikatu zen eta prozedura negoziatu bidez esleitu, publikotasun eta lehia printzipioak urratuta (ikus A.9).
4. 2005ean Udalak bost urterako kontratatu zuen kiroldegia eta udal igerilekuen kudeaketa, 1,6 milioi euroan. 2010ean ez zen pleguetan aurreikusitako luzapena gauzatu eta 2012an Osoko Bilkurak erabaki zuen kontratua ez luzatzea eta kontratistari eskatzea zerbitzua ematen jarrai zezan harik eta kontratua berriz esleitu arte, zeina txosten hau idatzi dugun datan egiteke baitagoen. 2017an zerbitzuaren kostua 366.950 euro izan zen. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu ditu, nahitaezkoa baita 2010az geroztik berriz lizitatzea. Gainera, Udalak kontratistari 2017an 272.619 euro ordaindu zizkion kontratuaren xede ziren instalazioetan garatutako ikastaro eta jarduera kontzeptuan, nahiz kontratuaren pleguak ez duen halakorik aurreikusten (ikus A.9).
5. 2017an aurrekontuko krediturik izan gabe 793.744 euroren ondasun arrunt eta zerbitzuak kontratatu ziren (ikus A.6).

Epaitegi honen ustetan, Trapagarango Udalak, 1etik 5era bitarteko aurreko idatz-zatietan adierazitako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Udalaren 2017ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA	ONDAREKOA		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	ONDAREA GARBIA
A.3 2017ko zerga-sarrerak OHZa, JEZa eta erregistratu gabeko zaborren tasa kontzeptuan.....	549	549	-	549
A.3 JEZen ikuskaritza aktak eta erregistorik gabeko 2017ko beste sarrera batzuk ..	268	268	-	268
A.4 Udalkutxa 2017ko likidazioa, GLLen diru-laguntzak eta beste.....	201	290	-	290
A.4 Zergari lotutako eragiketengatik BFari zor zaion BEZa	(98)	-	(98)	(98)
A.4 Finantzaketako desbideratzeak hirigintzako kuoten kontzeptuan	(749)	-	(749)	(749)
A.5 2017ko abenduko Gizarte Segurantza eta Elkarkidetzako kuotak.....	(84)	-	(84)	(84)
A.5 Produktibitate osagarria: gastu likidatua gastu aitortua baino txikiagoa	46	-	46	46
A.6 Gastu modura aitortu gabeko 2017ko gastuak	(858)	-	(858)	(858)
A.7 Langabetuak kontratatuzko Meatzaldeko Behargintza SLri ekarp., exek.gabe ...	144	-	144	144
A.8 Ondare kontab. erregistr. 2015 eta 2016ko gastuak aurrekont. aplikatu gabe..	(152)	-	-	-
UDALA GUZTIRA	(733)	1.107	(1.599)	(492)

2. Udalak ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehakapenik, ez amortizaziorako zuzkidurarik egiten. Hori dela eta, ezin jakin dezakegu Aktibo ez arrunteko saldoek, 60 milioi euro, aktiboaren 2017ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten.
3. Atxikitako Kontuek 541.008 euroren diru-sarrera barne hartzen dute, 2013tik 2016ra bitarteko urteetako JEZaren ikuskaritza akta baten ondorioz; akta horren aurka errekurtsioa jarri da eta txosten hau idatzi dugun datan epaia jaso zain dago. Udalak ez ditu enpresa laguntzaile baten ez berandutza interesak ez zerbitzuen kostua (likidatutakoaren gainean % 27) erregistratu, azkenean kobratzen den zenbatekoaren arabera aldatuko dena. Gainera, bazeuden HILBIZaren kontzeptuan 2017ko abenduaren 31n zorpetutako sarrerak, kuantifika ezineko zenbatekodunak harik eta likidatu arte, eta kontratistek erreklamaturako 2017 baino lehenagoko 56.933 euroren gastuak, txosten hau idatzi dugun datan Udalak onartu gabeak (ikus A.3 eta A.8).
4. Atxikitako Kontuek ez dute honako honen berri ematen: 519.796 euroren inbertsio-konpromisoak eta Meatzaldeko Behargintza SLri ekarpenak egiteko hitzartu eta baimendutako kredituak eta enpresentzako diru-laguntzak, guztira 288.635 euroren zenbatekoan (ikus A.3 eta A.7).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4.era bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Trapagarango Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, hor jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Atal honetan ekonomia-finantzaren jardura arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- 2017ko ekitaldirako aurrekontua Udalbatzak urte bereko uztailaren 21ean onetsi zuen; ordea, arautegiak urtea hasi aurretik onestea behin betiko aurreikusten du. 2017ko Kontu Orokorra hurrengo urteko irailean onartu zen hilabeteko atzerapenarekin.
- Aurrekontuaren exekuzioko oinarri-arauek uzten dute faseak metatzen (ADO) kontratu txikietan, baina gastuen 2. kapituluko erosketa guztietarako baliatu zen. Prozedura negoziatu edo ireki bidez izapidetutako kontratuekin hartutako konpromisoak erregistratu egin beharko lirатеke.
- Bermeen eta beste hartzekodun ez-aurrekontuko batzuen aurrekontuz kanpoko kontuak egiaz eskagarri diren zehazteko (2017ko abenduaren 31n guztira 251.840 euroren saldoa zuten) azterketa xehatua egin behar da.
- Memoriak jaso egin behar lituzke erretiro aurreraturako gizarte laguntza kontzeptuko inguruabarrak, 2017an 30.408 euro egin baitzituzten. Orobat, udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko abonuek eragindako sarreren berri ere eman behar luke, 2017an 52.772 euro egin ditu-eta; ez dira, baina, Udalaren Kontuetan zehazten, zerbitzua kudeatzen duen enpresaren ordainketari aplikatzen zaizkiolako.
- Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikinaren osagai nagusia Lurraren Udal Ondaretik eskuratutako baliabideek osatzen dute, -795.883 euro 2017ko abenduaren 31n-, ez baitute aurrez finkatutako epeetan inbertsio jakin batzuk egiteko eskatzen eta horrexegatik, komeni da saldo hau finantzaketako gainerako desbideratzeetatik bereiztea.
- Udalak ordenantza fiskalen urteko aldaketak ematen ditu argitara, baina tasa eta prezio publikoen testu osoa azken aldiz 1999an argitaratu zen aldizkari ofizialean; komeni da gaurkotu eta aldian behin argitara ematea.
- Udalak ez ditu zabor-bilketako tasaren hiruhileko erroldak onartzen. Diru-bilketa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egiten du eta ez da zerbitzu hau arautu hitzarmen edo mandatu bidez; 2017an 20.348 euro bildu zituen.
- Osoko bilkurak erabaki zuen bigarren mailako sarean ur-horniduraren kudeaketa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren esku lagatzea, 10 urteko aldirako, zeina 2014an amaitu baitzen. 2017an egoera berean jarraitzen zuen, Udalbatzak dagokion luzapena onartu gabe.
- 74.124 euroren aldeak azaleratu dira ekitaldi itxietako kobratzeko dauden sarreren kontularitzako saldoen eta premiamendu-bideko ordainagirien kontu xehatuen artean. Nahiz zuzkituak dauden, aztertu egin behar lirатеke alde horiek eta urteko kontuak ixtean alderatu kontularitzako saldoak xehakapen eta kanpoko diru-biltzaileen informazioarekin.



- Udalak 2014an ikuskaritzako lanetan laguntza kontratatu zuen eta 2017an 61.984 euroren kostua izan zuen. Udalak kontratu horretan jasotako prestazioen eta egikaritzaren jarraipena egin behar du, prestazio horietakoren batek agintea baliatzea eskatzen duen egiaztatzeko.

III.2 LANGILERIA

- Udalaren aurrekontuko plantillak existitzen diren lanpostuak zerrendatzen ditu, baina ez ditu lanpostu bakoitzaren kreditu-zuzkidurak xehakatzen; ez eta ezohiko ordainsarietarako eta lanpostu jakinei ez dagozkien bestelako hartzekoetarako egindako osotasunezko balioespenak ere.
- Udalbatzak 2017an produktibitate-osagarri bat onartu zuen eta langile guztiei 53.582 euroren zenbatekoan kitatu zitzairen, ordansari-maila eta 2017ko laneratze-hutsak aintzat hartuta. Araudiak, baina, langile bakoitzaren etekina, interesa edo ekimena eta eskuratutako emaitzak balioztatuko direla aurreikusten du.
- Dedikazio eskusiboa zuten 2 zinegotziren ordainsariak eta bileretara joateagatik zinegotzietan ordaindu beharreko zenbatekoak finkatzen zituzten Udalbatzen erabakiei ez zitzairen nahitaezkoa den publikotasuna eman.
- 2010ean langile baten lan-harremana mugagabe ez finko izendatzen zuen epaia ebatzi zen, LZan jasotzen ez diren egiturazko egitekoak betetzeko aldi baterako kontratatu ohi zena. Egoera irregular honek jarraitzen du 2017an.
- 2017an Udalak aldi baterako langileen 4 kontratazio egin zituen 2006an eta 2009an eraturako lan-poltsak baliatuta (administraria eta mantentze lanetako ofiziala); komeni da horiek berritzea.
- Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen langileei ordaintzen dizkien gauzako ordainsariak, batik bat bizitza aseguruak, 2017an 79.148 euro egin dutenak.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 5 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu (ikus A.9):

- Pleguek 3 kontratutan esleipen irizpide modura balioztatzen dituzte kalitate, ingurumen eta laneko segurantzako ziurtagiriak (1, 2 eta 5 zk. espedienteak), 5,7 milioi euroan esleitutakoak. Lehiatzaileei eskatzea badago, baina ez daitezke hautaketa-irizpidetzat har, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez dutelako (A1 akatsa).
- Guztira 3,2 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan eskatutako bermea (1 eta 2 zenbakiak), urteko kostua oinarri hartuta kalkulatu zen, kontratatutako guztizko kostua hartu beharrean (A2 akatsa).
- Guztira 4,7 milioi euroan esleitutako 3 kontraturen tramitazioan (2, 3 eta 5 zk.) aholku ematen duten kontratazio-mahaiko zenbait bileratan Kontu-hartzailea ez dela egon ikusi da (A3 akatsa).



- 2,2 milioi euroan egindako 2 esleipenen jakinarazpenek (2 eta 5 zk. kontratuak) ez zituzten hautaketa arrazoitzen zuten argudioak barne hartzen.
- Kiroldedia eta udal igerilekuak kudeatzeko kontratuak aurreikusten zuen Udalak parte izango zuela instalazioak sortzen zituen diru-sarreretan. Sarrera hauek hileru kitatzen ziren harik eta 2012an kopuru jakin bat finkatu zen arte; aldaketa onartu eta formalizatu egin behar izan zen. Berebat, onartu eta formalizatu behar izan zituzten urteko luzapenetan aplikatzen ziren prezio-berrikusketak (B akatsa). Udal aretoen garbiketa zerbitzuaren urteko prezioa 2017rako % 7,8 igo zen 2012an esleitutako urteko 413.996 euroren aldean; ordea, aldaketak, pleguetan aurreikusitako prezioen berrikuspenak eta beste bariazio batzuk ez zituen kontratazio-organoak onartu (B akatsa).

Alderdi orokorrak eta erosketa txikiak

- 4 kontratutan prezioa balioztatzeko aurreikusitako proportzionaltasun soileko formulak murriztu egiten zuen faktore honen egiazko balioa, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez (2tik 5erako espedienteak).
- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak saihestarren.
- Aztertu diren espedienteetan ez da ageri espedientea baimendu aurretiko Kontu-hartzailearen nahitaezko txostena, plegua, irizpideak eta prozedura arautegiari egokitzen zaiola egiaztatzen duena.
- Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertzean ikusi da zazpi zerbitzu eta hornidura zuzenean esleitu direla, guztira 360.465 euroan; horiek publikotasunik gabeko prozedura negoziatu modura izapidetu behar ziratekeen. Gainera, erosketa homogeneoak egin direla ikusi da, 368.719 euroan, zeinek kontratazio ugari eragiten baitituzte; prestazio nagusietan aleko prezioak finkatuta meta litezke horiek guztiak (ikus A.9 eranskina).

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- 20 kirol elkarteri emandako 54.750 euroren diru-laguntzak banatu ziren deialdiaren irizpideak aintzat hartuta, baina finkatutako banaketarako formula aplikatu gabe.
- 20.000 euroren zenbatekoan 2 diru-laguntza izendunen emakida-ebazpenak ez zituen zehazten ez garatu beharreko jarduerak, ez justifikatzeko epea eta moldea. Halaber, egindako funtsen aurrerakina ere baimendu behar zukeen.
- Udalak ez zion publikotasunik eman diru-laguntzen emakida ebazpenei, indarreko legediak agintzen duen moduan. Aurkeztutako justifikazioari dagokionez, ez ziren jasota utzi organo diru-emaileak egindako egiaztaketak.
- Udalbatzak diru-laguntzen alde aurreko fiskalizazioa mugatu zuen krediturik bazegoela egiaztatzen eta horiek zuzen justifikatzen, diru-laguntzen alde aurreko ordainketak



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

batere arautu gabe. Udal erregelamenduak aurreikusten duen geroko fiskalizazio erabatekoa ez zen gauzatu 2017an.

Meatzaldeko Behargintza, SL

- Sozietate honi 2017an egindako 35.626 euroren ekarpen orokorra arrazoitzen da 2012an Udaltzako hartutako erabaki bidez, sozietatearen helburua osatzen duten udal zerbitzuak mankomunatzekoa, alegia. Sozietatearen estatutuek ez dituzte ekarpenak kalkulatzeko irizpideak arautzen.
- Aurreko ekarpen orokorraz gain, Udalak ordainketak egin zituen kontzeptu hauetarako:
 - 58.400 euro Udalari eragiteagatik Udalaren garapen agentzia indartzen duten 2 langileren kostu osoa, zeina mandatu edo enkargu modura bideratzea komeniko bailitzateke.
 - 69.415 euro EAEk ikastetxe kontzertatuari emandako diru-laguntza osatzeko, zeinaren titular baita Meatzaldeko Behargintza SL. Diru-laguntza hau berariaz onartu eta arautu behar litzateke.
- Gaztedi Meatzalde programa eta eskualdeko enplegu programa garatzeko hitzarmenek, hurrenez hurren, 44.530 eta 200.000 euroren urteanitzeko kredituak behar zituzten, Udaltzako formalizatu aurretik onartu behar zituzkeenak. Berebat, ez ziren urteanitzeko kredituak onartu 44.105 euroren diru-laguntza deialdi baterako, 2017an deitu zena hurrengo urtean esleitzeko.

III.5 BERANDUTZA ETA BESTE ALDERDI BATZUK

- Ordainketa-eppei buruzko hiruhileko txostenek erakusten dute 2017an ordainketarako batez besteko epea 33,5 egunekoa izan zela, araudiak agintzen duen 30 eguneko epeaz gainetik.
- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispidea izateari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Informazio ekonomikoari dagokionez, ez dira udalaren webgunean barne hartzen ez aurrekontuak ez urteko kontuak. Honako hauei buruzko estatistikak ere barne hartu behar lirateke: kontratazioa eta diru-laguntzak; ondasunen aitortpena; eta zinegotzien jarduerak. Berebat, ez da hirigintzako hitzarmenen nahitaezko erregistroa eta artxiboa egiten.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera segidako taulan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	urtea			urtea		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015	2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.)	5.550	6.425	5.448	459	534	456
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	7.979	7.575	7.570	660	630	633
Ondare sarrerak (5. kap.).....	22	13	10	1	1	1
A. Diru-sarrera arruntak	13.551	14.013	13.028	1.120	1.165	1.090
Langileria gastuak (1. kap.).....	4.701	4.666	4.536	389	388	379
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	6.753	7.270	7.472	558	604	625
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.356	1.390	1.144	112	116	96
B. Funtzionamendu gastuak	12.810	13.326	13.152	1.059	1.108	1.100
Aurrezki gordina (A-B)	741	687	(124)	61	57	(10)
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Emaitza arrunta	741	687	(124)	61	57	(10)
- Maileguen amortizazioa (9. kap.) 9).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	741	687	(124)	61	57	(10)
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	263	109	550	21	9	46
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.)	144	880	145	12	73	12
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(681)	(687)	(2.628)	(56)	(57)	(220)
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(274)	302	(1.933)	(23)	25	(162)
Eragiketa ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)	467	989	(2.057)	38	82	(172)
Diruzaintza-geldikin likidoa	6.011	6.904	4.711	497	574	394
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	3.246	4.030	3.814	268	335	319
Zorpetzea 12.31n	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 3,9 egin dute behera 2017 eta 2015 bitartean eta bariazio negatiboak izan dituzte bai sarrera propioetan bai transferentzia eta diru-laguntzetan:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** % 1,8 egin dute behera hainbat kontzeptutan diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz, nahiz azpimarratzekoak diren OHZa eta EIOZa, bariazioak izan direlako BFAk kitatutako kobrantzetan eta hirurtekoaren lehenengo urtearen aldean jarduera txikiagoa izan delako. Bestetik, JEZaren diru-bilketak hobera egin du Udalak hirurteko azken 2 urteetan garatutako ikuskatze-jardueraren ondorioz.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 5,1 egin dute behera osagai nagusi duen Udalkutzak behera egin izanaren ondorioz. Funtz honetan kitatutako kopuruak % 10 egin



zuen gora hirurtekoan, baina funtseko likidazioak onartzen diren urtean erregistratzeko kontularitzako irizpidearen ondorioz, kontzeptu honen izenean erregistraturiko diru-sarrerak % 7 egin zuen behera.

Funtzionamendu-gastuak: % 2,7 egin dute gora 2015 eta 2017 bitartean, xehakapen honekin:

- **Langile-gastuak:** % 3,5 egin dute behera aztertutako aldian, 2016an eta 2017an soldatak % 1 igo baziren ere eta bere horretan eutsi diote ordainsarien ordainketek eta behera egin dute gastu sozialek, 2015ean kalte-ordainak puntualki kitatu zirelako.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** % 10,6 egin zuten gora, nabarmen behera egin zutelarik enpresek egindako lanek eta aldiz, gora konponketa eta zaintza gastuek eta askotariko gastuek. Gastuen kapitulu honetan eragina izan du ekitaldi bateko gastuek hurrengo ekitaldiko kontularitzan eragiteak, zeinak aldeak hein batean azal baititzake.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 15,6 egin dute behera, murriztu egin baitira Behargintza, SLri eta Mankomunitateari egindako ekarpenak eta Enplegu-planerako diru-izendapena.

Aurrezki gordina eta garbia: Eragiketa arruntek sortutako aurrezki gordina % 5,5era mugatu zen hirurtekoaren lehengo urtean eta negatiboa izatera aldatu zen 2017an, aurrez adierazitako bariazioen ondorioz.

Kapital eragiketen emaitza: Hirurtekoan inbertsioek 4 milioi euro egin dituzte eta horietatik % 52,2 diru-laguntza eta aktiboen salmenta bidez finantzatu da.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina: Aldagai honek gora egin du 2015 eta 2017 artean eta 3,8 milioi euro egin ditu 2017ko abenduaren 31n, sarrera arrunten % 29,3ren pareko.

Zorpetzea: Udalak ez du kanpoko finantzaketarik behar izan.

Ondorioa: Eragiketa arruntek aurrezki sortzeari utzi diote 2017an eta Geldikina da inbertsioak finantzatzeko iturri nagusia, kapitaleko diru-laguntza eta aktiboen salmentarekin batera. HKEEren doiketek kopurua zuzendu zuten, zeina 2017ko abenduaren 31n 3,1 milioi euro izan baitzen.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 38/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz, Udalaren Kontu-hartzaitzak aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen dela egiaztatu du. 2017ko Likidazioa dela-eta, ondorio hauek eskuratu ditugu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Aurrekontuaren egonkortasun helburua bete du eragiketa ez finantzarioen 222.861 euroren superabita eskuratu duelako, aintzat hartuta ekitaldiko 2,6 milioi euroren inbertsioak Geldikinarekin finantzatu direla.
- Gastuaren araua bete da, ekitaldiko gastu zenbagarriak behera egin baitu.

Zorpetzeari dagokionez, Udalak ez du kanpoko finantzaketarik behar izan.





Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE	KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1.- Zerga zuzenak	A.3	3.836	-	3.836	3.645	2.946	699	95
2.- Zeharkako zergak	A.3	95	-	95	64	(103)	167	67
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.928	-	1.928	1.739	1.676	63	90
4.- Transferentziak eta diru-lagun. arruntak	A.4	7.306	90	7.396	7.570	7.570	-	103
5.- Ondare sarrerak	-	12	-	12	10	10	-	83
6.- Inbertsio errealeen besterentzea	A.4	418	-	418	550	316	234	132
7.- Kapitaleko transferentziak	A.4	-	-	-	145	145	-	-
8.- Aktibo finantzarioak	-	-	4.527	4.527	-	-	-	-
SARRERAK GUZTIRA		13.595	4.617	18.212	13.723	12.560	1.163	100

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileria-gastuak	A.5	4.763	(200)	4.563	4.536	4.436	100	99
2.- Ondasun arrunt eta zerbitz. erosk.	A.6	6.774	706	7.480	7.472	7.253	219	100
4.- Transferentziak eta diru-lagun. arruntak	A.7	1.640	(416)	1.224	1.144	928	216	93
6.- Inbertsio errealak	A.6	418	4.527	4.945	2.628	2.065	563	53
GASTUAK GUZTIRA		13.595	4.617	18.212	15.780	14.682	1.098	87
SARRERAK - GASTUAK					(2.057)			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOB.R./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Zordunak	A.8	1.496	(25)	581	890
Hartzekodunak	-	1.184	-	1.173	11
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(25)		

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	13.723
Obligazio aitortuak	(15.780)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(2.057)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(*)(2)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(2.059)
Finantzaketako desbideratzeak	88
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	2.628
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	657

(*) Udalak aintzat hartu ditu indargabetzeak, ez, ordea, 23.280 euroren ezerezteak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Diruzaintza geldikina 2017.1.1ean	6.904
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza (ezerezerik gabe).....	(2.059)
Aurreko ekitaldietako eskubideak ezerezteagatiko bajak	(23)
Huts egindakoen hornidurarako dotazio aldaketak.....	(111)
DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 2017.12.31N	4.711
Diruzaintza	5.115
Aurrekontuko zordunak	2.053
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	-
Aurrekontuko hartzekodunak	(1.109)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(458)
Kaudimen-gabez. zuzkidura.....	(890)
DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 2017.12.31N	4.711
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina	(A.4) (897)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA	3.814



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	60.441	58.370	ONDARE GARBIA	64.943	65.213
Ibilgetu ez-materiala	37	37	Ondarea	2.283	2.283
Ibilgetu materiala	58.989	57.972	Aurreko ekitaldien emaitzak.....	61.992	61.448
Ibilgetuko inbertsioak.....	798	361	Ekitaldiaren emaitza.....	(316)	532
Lurraren ondare publikoa.....	617	-	Emaitzari egotzi gabeko diru-laguntza	984	950
AKTIBO ARRUNTA	6.279	9.285	PASIBO ARRUNTA (A.8)	1.777	2.442
Zordunak eta kobratz. beste knt. b. ...A.8	930	1.360	Epe laburreko zorrak.....	619	65
Epe lab. finantza inbertsioak	A.8 234	137	Hartzek. eta e/lab. ordain. bste knt btzuk.....	1.158	2.377
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk.....	5.115	7.788			
AKTIBOA, GUZTIRA	66.720	67.655	PASIBOA GUZTIRA	66.720	67.655

2017 eta 2016KO EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA Euroak milakotan

	2017	2016
Zergak.....	3.709	5.076
Tasak.....	1.294	1.398
Hirigintzako sarrerak.....	-	60
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	7.680	7.506
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	228	209
Izakinen bariazioa eta balioaren narriadura	-	688
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	193	399
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	13.104	15.336
Langileria-gastuak	(4.637)	(4.669)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(1.144)	(1.390)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(6.760)	(8.101)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(12.541)	(14.160)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	563	1.176
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk.....	-	(688)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	563	488
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(879)	44
EKITALDIKO EMAITZA	(316)	532





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Trapagarango Udala toki erakundea da, oinarritzko alderdietan 57/2003 Legeak eta 27/2013 Legeak aldarazitako TAOALek eta 2/2016 Legeak arautua.

Aurreko arategiak udalek ematen dituzten eskumen eta zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, hiri-garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur- eta kirol-jarduerak.

Ekitaldian ezargarria den ekonomia eta kontularitzako kudeaketa 10/2003 FAk eta 139/2015 FDK arautzen dute.

A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

2017ko Aurrekontua hasiera batean 2017ko ekainaren 21eko Udalbatzak onartu zuen eta 2017ko irailaren 15ean behin betiko onartutakoa eman zen argitara BAOn.

Ondoren, 2017ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kreditu txertaketa	Kreditu gehigarr.	Kredituen gaikuntza	Transferentziak +	- GUZTIRA	
4. Transferentzia arruntak	-	-	90	-	-	90
8. Aktibo finantzarioen bariazioa.....	4.297	230	-	-	-	4.527
SARRERAK GUZTIRA	4.297	230	90	-	-	4.617
1. Langileria-gastuak	-	-	-	-	(200)	(200)
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak ..	-	-	46	660	-	706
4. Transferentzia arruntak	-	-	44	-	(460)	(416)
6. Inbertsio errealak.....	4.297	230	-	-	-	4.527
GASTUAK GUZTIRA	4.297	230	90	660	(660)	4.617

Aldaketek gastuen hasierako aurrekontua % 34 gehitu zuten eta alkatearen ebazpen bidez onartutako 6 espediente izapidetu ziren.

Udalaren Aurrekontuaren likidazioa 2018ko otsailaren 26ko alkatetzaren dekretu bidez onartu zen. Udalbatzaren lehendakariak aurkeztutako Kontu Orokorrak Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko txostena jaso zuen eta jendaurrean azaldu ostean, batere erreklamaziorik jaso gabe, Udalbatzak 2018ko irailean onartu zuen.

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako eta tasek eragindako sarreraren eta bestelako sarreraren xehapena:

	uroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrerak
OHZa (BFAk kudeatua): 2016ko likidazioa eta 2017ko aurrerakinak	1.077
OHZa (BFAk kudeatua): 2016ko likidazioa eta 2017ko aurrerakinak	1.041
JEZa: Ikuskaritzako aktak	688
Trakzio mekanikodun lbilgailuen gaineko zerga	801
Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga	38
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	3.645
EIOZa: Aurreko urteetako likidazioaren itzulketa barne hartzen du	(12)
EIOZa: Ikuskaritzako aktak	76
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	64
Zabor-bilketa	511
Estolderia	52
Irekiera- eta hirigintza-lizentziak	75
Musika Eskola	76
Udal euskaltegia	29
Ettxerako laguntza zerbitzua	68
Enpresa hornitzaileek lurzoru, zorupe eta lur-gainaren erabilera pribatua	601
Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa (ibiak, terrazak, azokak etab.)	34
Eguneko zentroa	53
Operadore telefonikoen konpentsazioa	54
Isunak	51
Gainkarguak eta berandutze interesak	31
Beste hainbat sarrera	104
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	1.739
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	5.448

Udalak ez zuen kutxa irizpidea aplikatu OHZaren eta JEZaren sarrerak erregistratzean; ezta zabor-bilketen tasarenak erregistratzean ere:

- BFAk OHZa eta JEZa kudeatu eta kobratzen du, konturako entregak eta urteko likidazioak eginez; Udalak BFAtik jasotako kopuruak erregistratzen ditu. 2018ko otsailean egindako likidazioa Udalaren aldekoa izan zen 36.969 euroan eta urte horretako diru-sarrera modura erregistratu zen. Gainera, bi zergen kontzeptuan kobratzeko zeuden ordainagiriekin 1,7 milioi euro egin zuten eta 2017koekin, berriz, 185.602 euro.
- Zabor bilketaren tasa hiru hilean behin zorpetzen da eta beste entitate batek kobratzen du; Udalak jasotzen dituen kopuruak erregistratzen ditu. Horren ondorioz, lehenengo bi hiruhilekoetatik kobratu gabeko likidazioak eta 2017ko 2. seihileko kobrantzarako erroldak, guztira 326.155 eurorenak, ez ziren diru-sarrera modura aitortu 2017an.

Kobrantza erroldak erregistratu izan balira, 2017ko diru-sarrerak 548.726 euroan gehituko ziratekeen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2017an zenbait enpresari JEZ eta EIOZ kontzeptupean egindako ikuskaritza-akten ondorioz, diru-sarrerak erregistratu ziren; 541.008 euro egin zituen horietako batek errekurritu egin du, txosten hau idatzi dugun datan epairik ebatzi ez dela. Likidazio horren berandutza-interesak eta enpresa baten lankidetzaz-zerbitzuen kostua (likidatutakoaren gainean % 27), biak ala biak 2017ko abenduaren 31n erregistratu gabe zeudenak, aldatu egingo dira azkenean kobratzen den zenbatekoaren arabera.

2017ko maiatzean onartutako ikuskaritzako hiru akta azken ekitaldi honetako diru-sarrera modura erregistratu ziren; akta horiek 2018an 144.463 euroren kobrantza garbiak eragin zituzten. Orobat, 2018an erregistratu ziren enpresa hornitzaileek jabetza publikoaren erabilera pribatua egiteagatik tasak eta aurreko urteko telefono-operadoreen konpentsazioak, ekitaldiko lehenengo hilabetean kobratutakoak, 91.548 euroren zenbatekoan. Gainera, atzerapenak izan ziren beste bi zerbitzuren hileroko likidazioetan, 31.565 euroren zenbatekodunak. Atxikitako kontuetan jaso ez diren kontzeptu hauek eragindako 2017ko diru-sarrerak 267.576 eurorenak izan dira.

Jabetza Erregistroaren titularra aldatu izanaren ondorioz, atzerapenak gertatu ziren Hiri lursailen balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioan; txosten hau idatzi dugun datan, gainera, 2017ko abenduaren 31 baino lehenagoko 203 eskualdaketa daude likidatzeke, zehaztu ezin den zenbatekodun diru-sarrerak sortuko lituzketenak.

Udalak 2001ean Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoari ur-horniduraren kudeaketa osoa laga zion eta Udalak Partzuergoko eskualdeko kolektoreekin bat egiten duen estolderia-sareari eutsi zion. Partzuergoarekin izenpetutako hitzarmenak (2014ra arteko indarraldia zuena eta 2017ra arte luzatu zena) aurreikusten zuen Partzuergoak kudeatuko zuela zerbitzua finantzatzen duen tasa eta zerbitzua emango zuela. Udalak bigarren mailako sarean hobekuntza-inbertsioak egiteko konpromisoa onartu behar zuen; 2017ko abenduaren 31n 519.796 euroren obrak daude egiteko.

Udalaren kontuek ez dute udal kiroldgia erabiltzeagatik prezio publikoak eragiten dituen sarrerak barne hartzen, 52.772 euro 2017an, izan ere, zerbitzu hau kudeatzen duen enpresak sarrera horiek bere zerbitzuak ordaintzeko baliatzen ditu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIEK, DIRU-LAGUNTZEK ETA BESTERENTZEEK ERAGINDAKO SARRERAK

2017an 4, 6 eta 7. kapituluetakako sarrerak honako hauek izan dira:

Erakundea eta kontzeptua	Euroak milakotan Diru-sarrera
BFA	
Itunpeko zergak (Udalkutxa): 2017ko konturako ordaink. eta 2016ko likid. (552.182 euro)	6.436
Eguneko zentroa.....	286
Oinarritzko gizarte-zerbitzuak (2016ko likidazioa eta 2017ko aurrerakina)	148
Gizarte zerbitzuak: Ezohiko funtsa	54
Kirol-jarduerak, gazteentzakoak, kulturakoak, euskara, hiri ekipamendua	70
EAE	
HABE-Udal euskaltegia 2017.....	244
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (2016ko 42.184 euro barne hartzen ditu).....	182
Musika Eskola: 2015/2016 ikasturtea	81
Lanbide-2016ko enplegu plana eta 2017koaren aurrerapena.....	34
Osasun zentroa, liburutegia, bake-epaitegia, etab.	23
Estatua	
Zerga itundu gabeak.....	12
TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK GUZTIRA	7.570
815m2 lursail eraikigarriaren salmenta Funikular kalean	467
La Arboledan 6 herri-lurren salmenta	83
INBETSIOEN BESTERENTZEA GUZTIRA	550
Jarduera Plan Urbanizatzailea monetarizatzea (aparkalekua).....	77
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa: ura hornitzeko udal sarea birjartzeko laguntzak	64
EAE – liburutegiko teknologia berriak	4
KAPITAL TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK GUZTIRA	145

2017ko zerga itunduetan parte hartzeagatik sarrerak (Udalkutxa) diru-bilketa balioespenak oinarri hartuta kalkulaturiko konturako kobrantzak eragiten dituzte, hurrengo urtean kitatzen direnak. 2017ari dagokionez, emaitza positiboa izan zen 108.821 euroan eta Udalak sarrera hori 2018an erregistratu zuen.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak oso-osorik EAEk finantzatzen ditu urteko kopuru jakin bat arte; 2017an Udalarentzat 139.986 euro eman ditu. Gainera, EAEk % 67an laguntzen ditu diruz aurreko zenbatekoa gainditzen duten prestazioak, urteko zenbatekoaren % 30eko mugaketarekin. Osagarri hau hurrengo ekitaldian ordaintzen da eta 41.996 euro egin ditu, 2018ko diru-sarrera modura aitortu direnak.

2018an diru-sarrera hauek erregistratu ziren: 2016ko Lanbide enplegu programakoak eta 2017ko eguneko zentrokoak, hurrenez hurren, 33.862 eta 16.533 euroren zenbatekoan.

Udalak 2018an aitortu zituen 2017ko diru-sarrerak –nahiz sarrera sortu zen ekitaldian aitortu behar ziratekeen- 201.212 eurorenak izan ziren, aurreko paragrafoetan xeheki azaldu den moduan. Gainera, 2016/17ko ikasturterako musika eskolako laguntzak, 88.489 eurorenak, EAEk 2018an esleitu zituen, baina horien kobrantzarako aurreikuspen bat ondare kontabilitatean erregistratu behar zatekeen.



Udalak aurrekontuan erregistratzen du eragindako eta euskarritutako BEZa, zerga honi lotutako eragiketetan. Horregatik, 6. kapituluko sarrera modura erregistratu zen Funikular kaleko orubearen salmentako BEZa, BFari ingresatuko zaion arren; honela, bada, 97.885 euro da BFari 2017ko abenduaren 31n zergari lotutako eragiketen kontzeptuan zor dion saldoa.

Finantzaketako desbideratzeak

Segidan xehakatuko ditugu 2017ko abenduaren 31n helburudun diru-sarreraren arabera bereizitako finantzaketako desbideratzeak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
LUO: aprobetxamenduak eta ondareko ondasunen salmentak	796
2017 baino lehenagoko saldoa	2.874
Lursailen salmentak 2017an	550
2017ko inbertsioak	(2.628)
Hirigintzako lanen 2017ko sarrerek (lur gaineko aparkalekua)	77
Enplegu Planerako Lanbideren diru-laguntza: 2017ko aurrerakina	24
GUZTIRA	897

Inbertsioen besterentzeak eta hirigintzako aprobetxamenduen kontzeptuan (LUO) jasotako diru-sarrerek baliatu behar dira babestutako etxebizitzak sustatu, zuzkidura publikoak zaharberritu edo eraiki, jarduera ekonomikoetarako lurzorua erosi, ondare historikoa zaharberritu edo udal ekipamendu kolektiboak hobetzeko. Udalak diru-sarrera horien eta ematen zaien erabileraren kontularitzaz kanpoko kontrola egiten du.

2017ko abenduaren 31n osagabe zegoen 5, 6A, 6B et 6C egikaritze-unitateen urbanizazio-lana, Udala zenbait gasetan gauzatzen ari dena. 2017ko urtea baino lehenago jasanarazitako hirigintzako kuotek 2,4 milioi euro egin zituzten eta Udalak gauzatutako kudeaketa eta hirigintzako gastuak -hauek ere aurreko urteetan- 1,7 milioi eurorenak izan ziren. Hori dela eta, 2017ko abenduaren 31n finantzaketaren desbideratze bat dago, Udalak aintzat hartutakoez gain, 749.380 euroren zenbatekoduna.

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Ondotik Udalaren langile-gastuak xehatu dira:

KONTZEPTUA	Gastua 2017	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Langileak 17.12.31
Goi kargudunak eta 2 zinegotzi	109	-	3
Funtzionarioak	1.754	52	40(a)
Langile lan kontratudun finkoak	1.421	36	29(b)
Aldi baterako langileak	251	-	13(c)
Produktibitate osagarria.....	100		
Ordainsariak guztira.....	3.635	88	85
Gizarte Segurantza	875		
Elkarkidetzeta-Borond. Gizarte Aurreik. Erakundearen kuotak.....	26		
UDALA GUZTIRA	4.536		

(a) Lanpostu hutsak betetzen dituzten 13 bitarteko funtzionario eta lan metaketa-ordezkatze lanetan diharduten bitarteko 5 funtzionario barne hartzen ditu.

(b) Funtzionarioen lanpostuetan 8 lan kontratudun langile finko barne hartzen ditu.

(c) Lanpostu hutsa bete arte aldi baterako 10 kontratu; 1 plazarik gabeko kontratu mugagabea; 1 txandakakoa eta 1 obrako lan kontratuduna.

Langileen ordainsariek % 1 egin zuten gora, 2016an indarrean zeudenekin alderatuta. Udalbatzak 2017an produktibitate-osagarri bat ordaintzea onartu zuen eta 100.000 euroren funtsa zuzkitu zen, 2018an kitatu zena; horren zenbatekoa 53.582 euroan finkatu zen.

Udalaren hitzarmen arautzaileak erretiro aurreratu kontzeptuan laguntza sozialak jasotzen ditu eta 2017an 30.408 euro ordaindu zaizkio langile bati.

Aurreko taulako Gizarte Segurantzaren eta Elkarkidetzaren kotizazioak azarora arte zorpetutakoak dira, 2017ko abenduko kuotak barne hartu gabe, 84.342 eurorenak. Udalak 101.149 euroan osatu zituen Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankorrerako prestazioak.

Altak

2017ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kop.
Bitarteko funtzionarioa (12 langile)	18
Lanpostu hutsa.....	3
Titularren ordezkapen iragankorra	8
Lanen pilaketa eta aldi batera programak	7
Lan-kontratuko langileak (4 langile)	4
Errelebo kontratua.....	1
Titularren ordezkapen iragankorra	1
Obra.....	2
GUZTIRA	22



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Hona hemen Udalaren gastuen 2. kapituluaren xehapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Bulego-gaien, kamioien, etab. alokairuak	67
Eraikuntzak eta instalakuntzak konpondu eta zaintzea	1.326
Bulegoko material suntsigarria	79
Argindarra hornitzea	590
Ur, erregai eta bestelako hornidura	406
Komunikazioak	91
Erantzukizun zibil, eraikin eta ibilgailuen aseguruak	161
Hainbat gastu	1.781
Argitalpenak eta publizitatea	50
Gastu juridikoak	43
Haur eta gazteentzako ludoteka, gazteleku eta beste zerbitzu batzuk	348
Gizarte eta hezkuntzako esku-hartze eta gizarteratze zerbitzuak	138
Kiroldegian eta udal igerilekuan ikastaroak eta jarduerak	290
Kultur ekitaldiak eta jaiak antolatu eta kontratatzea	886
Beste txikiago batzuk (ordezkaritza gastuak eta beste)	26
Enpresek egindako lanak	2.869
Bide garbiketa eta zaborrak jasotzea	541
Udal eraikinen garbiketa	454
Adinekoentzat etxez etxeko laguntza zerbitzua	566
Orkonea adinekoen eguneko zentroa	358
Udal kiroldegiaren mantentze-lanak	266
Orkonea eta La Arboledako jubilatuen lokalak	151
Beste txiki batzuk	533
Langileen eta zinegotzien lokomozio-gastuak	11
Zinegotzien bertaratzeagatiko egun-sariak	91
GUZTIRA	7.472

Inbertsioak

Hona hemen 2017ko inbertsioen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Aiestaran baserria zaharberritzea, 1. fasea	615
La Escondrilla aparkalekua, 1. fasea	492
Funikular kaleko espaloiak	473
Errotarte futbol zelairako belarra hornitu eta jartzea	220
Polizia-etxea zaharberritzea	128
Beste txiki batzuk	700
GUZTIRA	2.628



Udalak ekitaldiko gastu modura aurreko urteetako fakturak erregistratu zituen eta ez ziren 2017ko aurrekontuan jaso urte horretan gauzatutako ondasun eta zerbitzuen kontratazioa eta inbertsioak, hurrenez hurren 793.744 eta 64.114 euroren zenbatekoan. Gastuen 2. kapituluaren 2017ko abenduaren 31n egikaritu gabeko kreditu-geldikinek 8.135 euro egin zuten.

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Ondotik transferentzia eta diru-laguntza korrante eta kapitalekoak jaso ditugu:

	Euroak milakotan
Onuraduna eta diruz lagundutako jarduera	Gastua
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	595
Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitatea	257
